

MANIFESTUA

Lana. Demokratizatu. Desmerkantilizatu. Deskutsatu.



THOMAS PIKETTY, JAMES K, GALBRAITH, BENJAMIN SACHS ETA BESTE
BATZUK

Zer erakutsi digu krisi honek? Lehenik eta behin, gizakiak, lanean, ezin direla “baliabide huts” izatera mugatu. Medikiak eta farmazialariak, erizainak, banatzaileak, kutxazainak... konfinamendu aldi honetan bizirautea ahalbidetu diguten pertsona horiek guztiak horren adibide bizia dira. Pandemiak erakutsi du, halaber, nola lana ere, berez, ezin den “merkantzia huts” izatera mugatu. Kolektibo zaurgarrientzako osasun, arreta eta zainketa zerbitzuak merkatuaren legeetatik babestu beharko genituzkeen jarduerak dira. Hori egin ezean, desberdinkeriak areagotzeko arriskua izango genuke, ahulenak eta behartsuenak sakrifikatuz. Zer egin horrelako jokalekua ekiditeko? Langileei aukera eman behar zaie erabakietan parte hartzeko, hau da, enpresa demokratizatu egin behar da. Eta, halaber, lana desmerkantilizatu behar da, hau da, ziurtatu egin behar da kolektibitateak denontzako enplegu baliagarri bat bermatuko duela. Une erabakigarri honetan, zeinean aldi berean pandemiaren arriskuari eta klimaren kolapsoari aurre egin behar baitiegu aurre, bi eraldaketa estrategiko horiek ahalbidetuko ligukete, pertsona bakoitzaren duintasuna bermatzeaz gain, kolektiboki jardutea planeta deskutsatzeko eta salbatzeko.

Demokratizatu. Ahal dugunok konfinatuta jarraitzen dugun bitartean, funtsezko langileak (gehienbat emakumeak), bereziki pertsona arrazializatuak, migratzaileak eta ekonomia informalean dihardutenak, egunero jaikitzen dira besteei zerbitzuak egiteko. Horiek lanaren duintasunaren froga dira, euren zeregina hutsala ez dela erakusten dutenak, eta egitate bat erakusten dute,

kapitalismoak, gizakiak “baliabide huts” bihurtzeko ahalegin tematian, beti ezkutatu nahi izaten duena: izan ere, euren lana inbertitzeko prest dauden pertsonak izan ezean, ez dago ez produkziorik ez inolako zerbitzurik.

Horrez gain, konfinatuta daudenak (batez ere, emakumeak), eskura duten guztia mobilizatzen ari dira, etxetik, euren erakundeen jarduera mantentzeko, modu masiboan erakutsiz oso oker dabiltzala uste dutenak enpresaburu baten kezka nagusia dela langilea bistatik ez galtzea, ez duelako konfiantzarik merezi, eta hobeto kontrolatu behar dela. Egunetik egunera, langileak agerian uzten ari dira ez direla enpresaren “zati interesatu” bat: enpresa eratzen duen zatia dira. Aitzitik, oraindik ere, sarriegi ukatzen zaie enpresaren gobernuan parte hartzeko eskubidea, zeina kapitala jartzen dutenek monopolizatzen baitute.

Gure buruari serio galdetzen badiogu, nola adierazi lezaketen enpresek, eta gizarteak oro har, euren errekonozimendua langileei dagokienez, ebidentea dirudi berdindu egin beharko litzatekeela ordainsarien kurba, altuenetatik hasita, eta gainerakoentzat gorako maila batetik hasi; baina aldaketa horiek ez lirateke nahikoa izango. Bi mundu gerren ondoren, emakumeei bozkatzeko eskubidea aitortu zitzaien bezala, gerra garaiko ahaleginean egindako ekarpena aitortuz, gaur egun ez dago justifikaziorik lanaren inbertsoreen emantzipazioa ukatzeko, eta enpresan duten herritartasuna aitortzeko. Guztiz beharrezkoa den eraldaketa bat da.

Europar, euren lana enpresan inbertitzen dutenen ordezkartza enpresa batzordeen bitartez hasi zen gauzatzen, Bigarren Mundu Gerra amaitu eta gero. Baina langileak ordezkatzeko “Ganbera” horiek organo ahul bihurtu dira, akziodunek izendatutako zuzendaritza taldeen borondate onaren menpekoak. Ganbera horiek ez dira gauza izan kapitalaren berezko dinamika blokeatzeko, horrek beretzat baino ez baitu pilatu eta pilatu nahi, planeta suntsitzen duen bitartean. Langileak ordezkatzeko Ganbera horiek, aurrerantzean, administrazio kontseiluek dituztenen antzeko eskubideekin hornitu behar lirateke, enpresaren gobernua (hau da, maila goreneko zuzendaritza) majoria bikoitzeko sistema baten menpe jartzeko.

Alemanian, Herbehereetan eta Eskandinaviako herrialdeetan, Bigarren Gerra Mundua amaitu ondoren, elkarrekin kudeatzeko edo erabakitzeke progresiboki

martxan jarri ziren bideek etapa erabakigarria osatu zuten, baina, halere, hori ez da nahikoa enpresaren barruan benetako herritartasun bat sortzeko. Are gehiago: Estatu Batuetan, sindikatzeko eskubidea gogorki borrokatu izan delarik, gaur egun ahotsak entzuten dira lanean inbertitzen dutenak eskubidea izan dezaten ordezkariak aukeratzeko, administrazio kontseiluen baitan majoria kualifikatu bat izango dutenak. Zuzendari nagusia izendatzea (emakumea bada, hobeto), enpresaren estrategiaz erabakitzea, edo irabaziak nola banatzen diren erabakitzea... alderdi horiek guztiak garrantzitsuegiak dira, bakarrik akziodunen ordezkartzan esku uzteko. Enpresan euren lana, osasuna eta, finean, bizitza bera inbertitzen dutenek aukera eduki behar dute, baita ere, erabaki horiek kolektiboki balioztatzeko.

Desmerkantilizatu. Krisi honek erakusten du, halaber, noraino lana ez litzatekeen merkantzia moduan tratatu behar. Krisiak erakusten du ezin ditugula erabaki kolektibo hain garrantzitsuak merkatuaren mekanismoen esku utzi. Zaintzen eta lehen arretako sektoreetan lanpostuak sortzea, edo larrialdietako materiala eta ekipamenduak hornitzea, errentagarritasunaren logikaren menpe daude zenbait urtetik hona, baina krisi honek engainutik aterarazten gaitu. Hil zaizkigun dozenaka milaka kideek gogorarazten digute zenbait premia kolektibo estrategiko daudela immunitatea izan behar dutenak merkantilizazioaren aurrean. Oraindik ere kontrakoa baieztatzen dutenak denok arrisku larrian jartzen gaituzten ideologoak dira. Ezinezkoa da errentagarritasunaren logikak guztia erabakitzea. Sektore jakin batzuk arautu gabeko merkatuaren legeetatik babestu behar diren bezala, bakoitzari lan duin bat bermatu ahal izan behar zaio.

Helburu hori lortzeko modu bat da Enpleguaren Bermea, herritar bakoitzari enplegu bat edukitzeko aukera eskainiko diona. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 23. artikulua lan bat izateko eskubidea aldarrikatzen du, libreki aukeratutako lana, lan baldintza bidezko eta egokiekin, eta langabeziaren kontra babestuta egonda. Ildo horretan, Enpleguaren Bermeak aukera emango luke, pertsonak bizimodua duintasunez ateratzeaz gain, kolektiboki gure indarrak biderkatzeko, gizartean eta ingurumenean aurre egin beharreko premia ugariari hobeto erantzuteko. Enpleguaren Berme bat, komunitateen eta tokiko administrazioen esku jarrita, aukera emango luke, zehazki, klimaren

kolapsoa saihesten laguntzeko eta, aldi berean, pertsona guztiei etorkizun duin bat bermatzeko. Europar Batasunak beharrezko bitartekoak jarri beharko lituzke bere Green Deal-en esparruan horrelako proiektu bat sustatzeko. Bere Banku Zentralaren misioa berrikusiko balu, aipatu programa finantzatu dezan – beharrezkoa da gure biziraupenerako–, EBk Batasuneko herritar guztien eta bakoitzaren legimititatea irabaziko luke. Langabezia moduan datorren txokeari irtenbide antizikliko bat eskainiz, EBk erakutsiko luke konpromisoa duela gure gizarte demokratikoen aurrerabide sozial, ekonomiko eta ekologikoarekin.

Deskutsatu. Ez ditzagun 2008ko akatsak errepikatu: krisi hura sektore finantzarioaren erreskate baldintzagabearekin garbitu zen, zor publikoa sakonduz. Gure estatuak orain ekonomia interbenitzen badute, garrantzitsua da behintzat enpresa onuradunei exijitu ahal izatea demokraziaren esparru orokorrera egokitu daitezela. Estatuak, berak zerbitzatzen duen eta beraosatzen duen gizarte demokratikoaren izenean, eta baita ere ingurumenaren biziraupena zaintzeko duen erantzukizunaren izenean, baldintzatu egin behar du bere interbentzioa, interbenitutako enpresek norabide estrategikoak aldatu ditzaten. Ingurumenaren arloko neurri zorrotzak betetzetik haratago, demokratizatzeko baldintzak ezarri behar ditu, enpresen barne gobernuari dagokionez. Izan ere, trantsizio ekologikoa bultzatzeko hobekien prestatuta dauden enpresak dira, zalantzarik gabe, gobernu demokratikoak dituztenak; kapitala zein lana inbertitzen dutenek euren ahotsa entzunarazi dezaketenak, eta elkarrekin adostuta praktikan jarri beharreko estrategiak erabakitzen dituztenak. Hori da ez harrigarri gertatu behar: egungo erregimenaren pean, kapitala/lana/planeta konpromisoa lanaren eta planetaren kalterako da beti. Cambridgeko Unibertsitateko Cullen, Allwood eta Borgstein ingeniariak erakutsi dutenez (Envir. Sc. Tech. 2011 45, 1711–1718), “ekoizpen prozesuetan aldaketa egingarriak” ezarriko balira, munduko energi kontsumoaren %73 aurreztu liteke. Baina aldaketa horiek eskulan gehiago eskatuko lukete, eta epe laburrera hartzea gehiago kostatzen diren erabakiak hartzea. Enpresek kapitala jartzen dutenen mesedetan baino administratzen jarraitzen duten bitartean, zuen iritziz, zeren alde ebatziko litzateke erabakia, energiaren kostua barregarria den une honetan?

Aldaketa horiek dakartzaten desafioak gorabehera, kooperatiba batzuek edo ekonomia sozial eta solidarioko hainbat enpresak frogatu dute bide hori bide sinesgarria dela, helburu hibridoak ezarriz (finantzarioak baina baita ere sozialak eta ingurumenekoak), eta barne gobernu demokratikoagoak garatuz.

Ez ditzagun ilusioak egin. Euren kasa utziz gero, kapitala jartzen duten gehienak ez dira arduratuko euren lana inbertitzen duten pertsonen duintasunagatik, ezta klimaren kolapsoaren aurkako borrokagatik. Aitzitik, beste jokaleku asko esperantzagarriago bat daukagu gure eskura: enpresa demokratizatzea eta lana desmerkantilizatzea. Eta horrek planeta deskutsatzea ahalbidetuko digu.

**Manifestuaren sinatzaileen zerrenda osoa, besteak beste Thomas Piketty, James K. Galbraith edo Benjamin Sachs izen ospetsuak nabarmentzen direlarik, esteka honetan kontsultatu daiteke: <https://democratizingwork.org/>*

[Artikulu hau beste 34 komunikabiderekin batera argitaratu da, horien artean egonik Le Monde, Die Zeit, Boston Globe, Le Soir, De Morgen eta The Guardian].